

KOMUNIKAZIO KANALAK

Bezeroei gure zerbitzuaren berri emateko webgune bat sortuko dugu eta horrez gain, gurekin kontaktuan jartzeko telefono zenbaki bat eta korreo elektroniko bat erraztuko diegu bezeroei, beren kezka eta iradokizunak helarazteko. Bertan, gure enpresak ematen duen zerbitzuari buruzko informazioa eskainiko dugu eta, bestalde, gure denda salduko ditugun gailuak zein diren zehaztuko dugu. Hauek ezingo dira ordea internet bidez erosi.



Hala ere, denda fisiko bat edukiko dugu produktuak zuzenki saltzeko eta bezeroekin zuzeneko harremana sustatu ahal izateko.



Bestalde, aktiboen salmenta burututakoan, bezeroekin harremanetan jarraitzea dugu helburu. Izan ere, oso garrantzitsua iruditzen zaigu harreman hau sustatzen jarraitzea, bezeroak gure zerbitzua erabiltzen jarrai dezaten. Horretarako erabiliko ditugu aurretik aipatutako komunikazio kanalak.